

WITTGENSTEIN ETA ETIKAREN HIZKUNTZA

Esteban Antxustegi

Artikulu honen bidez, bere bizitza eta pentsamenduaren ibilaldiari jarraituz, Wittgensteinek betidanik Etikaz izan zuen ardura azaldu nahi da. Honela zioen *Tractatus*eko hitzaurrean: "Nire liburuaren zentzua Etikoa da... nire liburuak bi zati ditu: idatzia eta idatzi ez den beste guztia. Bigarren hau da, hain zuzen ere, garrantzitsuena. Nire liburuan Etika, modu batez esateagatik, barrutik mugatua gelditu zen".

Wittgensteinek bereizi egingo du proposizio baten bidez adieraz daitekeena (esanez) eta ezin daitekeena adierazi (esan), soil-soilean azaldu baizik. Bigarren honek -balore absolutu gisa- zerikusia dauka inperatibo kantiarrarekin, zerbait esistitzen delako ziurtasun-esperientzian eta erabat salbu aurkitzen garen intuizioan oinarritzen delarik.

Lengoaia-joko guztietan ere, hauek jarrera moralak martxan jartzeko bakarrik gertatzen diren neurrian, etika bat dago. Wittgensteinentzat gizakia bereziki morala den zerbait esaten saiatzen da. Baina ordezkatzeko faltsuetan ez erortzeko aurreneko Wittgensteinek isiltasuna proposatzen bazuen, bigarren hau kultura desberdinetan aurkitzen den lengoaia mitiko-sinboliko baten berreskuratzeaz mintzo zaigu. Hara zer zioen Frazer-en Urrezko Abarrari buruzko Oharpenetan: "...heriotza, jaiotza eta sexuaren adierazpena, hau da, gizakiak urteetan zehar berari buruz hautematen duena baino ez da ebidentea, eta haxe da benetan dakiguna eta interesatzen zaiguna.

Hizkuntza, tresna ala helburua. Dena den, beti berarekin bueltaka eta benetan nahi duguna adierazi ezinik haren armiarma-sarean kateaturik gelditzen gara etengabe. Seguraski, nik arazo bera izango dut oraintxe bertan. Baina badago beste aukera bat, hots, garrantzitsuena gertatzen zaiguna azaldu ezinean isiltasuna aukeratzea. Baina, zein da hain inportantea kontsideratu arren adierazteko orduan hain zaila gertatzen zaiguna? Wittgensteinek ez du zalantzarik. Hori Etika baino ez da.

Baina, zer dio Wittgensteinek Etikari buruz? Egia esan behar bada, ezer gutxi zeren, edozein esparrutan bezala, aurretik klasiko edo neoklasikoek esan dutena, modu egoki edo okerrago batean, errepikatzea baino ez bait da egiten. Arazoa ez da hau, beste bat eta sakonagoa baizik. Nik Etikari buruz ezer gutxi esateak ez du bakarrik nire jakinduriarik eza adierazten, hau banekielako, baizik eta Etika bera non dagoen, nola seinalatu dezakedan, ez ote dugun bere edukina traizionatzen Zientzia Moralen aldarera igotzerako unean etabarreko galderak egin diezazkioket neure buruari. Galdera zaharrak, Wittgensteinek egiten dituen itaunak hain zuzen ere.

Etika irakasteko obligazio ofiziala daukagunok, ia ziurtasun guztiz, perbertsidade hutsa praktikatzen dugu. Ikasi, adierazi, ongia edo gaizkiari buruz zerbait esan, moralizatu, irakatsi edo aktibitate bat aholkatzean bizitzan benetan interesa duenarekin gero eta zerikusit gutxiago daukanari Etika deitzeko joera areagotu besterik ez bait dugu egiten.

Egia da Wittgensteinek ez zuela gehiegirik esan Etikari buruz (hitzaldi bat 1929an), baina isiltasun hau, *Tractatus*-a argitaratu eta laister bere lagun Von Ficker-i idatzitakoarekin kontrajartzen da. Honela zioen: "Nire liburuaren zentzua etikoa da... nire liburuak bi zati ditu: idatzitakoa eta idatzi ez den guztia. Bigarren hau da, hain zuzen, inportanteena. Nire liburuan, modu batez esateko, Etika barrutik mugatuta gelditu zen".

642. proposizioak hauxe dio: "Ezin da egon Etikako proposiziorik. Proposizioek ezin dute gorengo ezer adierazi, zientziako proposizioek adierazten dutena baino ezer ere ez gorenagorik:". Eta 6421.ean honela jarraitzen du "Argi dago Etika ezin dela adierazi" Eta 6422.ak, azkenik, hauxe dio: "<<Egin behar duzu>> erako lege etiko bat proposatzen denean sortzen den lehen pentsamentua hauxe da <<eta egiten ez badut>>?. Jakina da Etika ez dela zigorra edo sari mailan aritzen. Horrela, bada, ekintza baten ondorioez aritzeak ez du garrantzirik. Edo, gutxienez ondorio hauek ez dira gertakariak. Hala ere, arazoa adieraztean zerbait zuzenak egon behar du. Zigor edo sari etikoren bat egon beharra dago, baina hau ekintzan bertan aurkitu beharko da. (Eta sariak pozgarria izan behar duen bitartean, zigorrak gozogabea izan beharko du)".

Ondoren Wittgensteinek Etikako subjektu bezala borondateaz "hitz egiten" digu. Mundua aldatzeko posibilitateez. Zoriontasun eta heriotzaz. Gauza garrantzitsuez "mintzatzen" da. Batzuei amaiera hau

Tractatus-a bukatzeko modu literario bat iruditu zitzaion. Hauen ustez adierazpen hauek isiltasunean bukatzen den gonbite dotore eta artistiko horretarako prestakuntzak baino ez dira. Ikuspuntu honetatik Wittgensteinek ezagutzaren oinarri orokorra *Tractatus*-aren lehenengo zenbakietan ematen digu, hau da, logika matematikoa, azalpen tautologikoa, gure (emandako) espazio logikoaren hedaketa eta ezagutza enpirikoaz iharduten duenean, hots, naturako zientziek proposizioak alde batera ala bestera dauden -egia ala gezurra diren- jakiteko egiten duten konpromezuzko bilaketa burutzen dutenean. Gainontzekoa, 64. proposiziotik bukaera arte dagoena alegia, hitz politen gordailuan sartzeko zatiak baino ez lirakeke izango. Horrela ulertu zuen, gehienbat, Vienako Elkarreak.

Baina interpretazio hau, bere garaian hegemonikoa izan bazen ere, Von Ficker-i luzatutako eskutitzarekin konparatzen badugu kontrastea ezin da handiagoa izan. Honen arabera, Wittgensteinek inportantetzat jotzen zuena neopositibistek soberako mordoiloa kontsideratuko lukete. Bere lagun Engelmannek "Bemerkungen zur *Tractatus*"ean esan zuen jarraitzaile-belaunaldi oso batek Wittgenstein positibistatzat hartu zuela gauza oso garrantzitsu bat esateagatik, hau da, hitz egin daitekeenaz eta isildu beharrezkoaren artean muga zatitzaile bat ezarri zuelako. Honekin ados zeuden neopositibistak. Baina bazegoen desberdintasunik ere, hauentzat ez bait dago ezer ere ez isiltzeko. Positibismoak (neopositibismoak) bizitzan dagoen interesante

bakarra hitz egin daitekeena dela uste du. Wittgensteinek, aitzitik, bere indar guztiekin adierazi zuen gizakien bizitzari modu berezi batez dago-kionak isilean gelditu behar duela. "Ez du irla (ezagutza) honen kostaldea ezarri nahi, ozeanoaren mugak baino".

Engelmannen neopositibismoa-
rekiko gehiegizko jarrera kontrakoak aurrez emandako eta oraindik irauten duen tradizio gogorraren kontrapisu modura balio dezake. Engelmannek *Tractatus*-aren "ondorio mistikoei" Wittgensteinen berrerorpen sentimentaltzat jotzen dituztenei iseka egiten die. Esan dezagun, bide batez Wittgensteinek "mistiko" hitza tradizioz kanpo erabiltzen duela. Badirudi Russellengandik hartu zuela. Normalki mistikoak ezohizkoa esan nahi du. Wittgensteinen kasuan sentimentuarekin (Fühlen) eta munduarekiko sentimentuarekin lotuta dago. Engelmannek Wittgensteinekin izandako elkarriketa baten anekdota kontatzen digunean mistikoa "gauzen inguruan dagoen lanbro urdinska bat" bezala azaltzen zuela esaten du. Adierazi ezin daitekeenaren existentzia, beraz, zuzenean hartu beharra dago eta ez metafora gisa.

Beste arazo bat. Zergatik da Etika transzendentala? **Proposizioa** errealitateari galdetu ondoren egia edo gezurrean erabakitzen dena ulertzen badugu, orduan, ez dago proposizio etikorik. Etikak ez digu munduari, kontingente denari buruz ezer esaten. Zentzu honetan Etika logika traktarianoaren antzekoa dugu. Biak mutuak dira mundua osatzen duten gertakariei buruz. "Eurria egiten du edo

euria ez du egiten" moduko proposizioak, beti egiazkoa izanik, ez du munduaz berririk ematen, ez du inolako zentzu enpirikorik. Etikak, era berean, ez dauka edukin enpirikorik. Ez dauka zerikusirik, logikak bezala, munduaren **barruan** dauden gertakariekin. Irudikapenaren teoriak dioen bezala, mundua osotasunean pentsatzen badugu, eta ez gauzak diren bezalatsu, kontingentziatik at, logikaren transzendentzia ematen da.

Etikarekin antzeko gauza gertatzen da. Etika ez dago munduaren barruan, Horregatik balorea, munduaren zentzua (641. proposizioa) mundutik kanpo gelditzen da. Horrexegatik "Jainkoa", "balore duenaren" laburpen modura, ez da munduan agertzen (6432). Zeren eta, munduan guztia akzidentala baldin bada, egia edo gezurrari buruz axolagabeko gertatzen bada, orduan baloreak (axolagabeak ez direnak) ez bait dira gertakarietan egongo. Hauek erlatiboak dira. Haiek, ostera, absolutuak. 64321. proposizioak honela dio: "Gertakariak eginbeharrari (Aufgabe) dagozkio, eta ez soluzioari (Lösung)". Honek gertakariak bildu, batu, pilatu egiten direla esan nahi du, baina ez dutela ongia edo gaizkiari buruz konponbiderik ematen.

Hemen esandakoari jarraituz ezingo da Etikako subjektuari buruz **hitz egin**, ezingo da balore eramaleari buruz proposiziorik eraiki. Ni transzendentalez mintzatzea bezalakoa izango litzateke. Eta hau ezinezkoa da. Ni enpirikoaz bakarrik hitz egin daiteke. Honek transzendentala suposatzen du, baina azken honetaz

ezin da ezer esan. Hitz egitea posibilitatzen duenaz hitz egitea bezalaxe izango litzateke, erabat ezinezkoa.

Horregatik borondateak, Etikako subjektu transzendentala denez gero, munduaren mugak aldatuko ditu (643). Benetan interesa duena -guztia- edozein erantzunetatik kanpo egongo da. Ez da eginbehar (Aufgabe) bat. Munduko erantzun eta galderetatik kanpo dago. Ongia eta gaizkiak, beraz, lengoaiari (mintzairan) azaldu ezin daitekeenarekin zerikusia izango du. Norbaitek Wittgenstein osatu dezake esanez ongia eta gaizkiak ez dutela mundua aldatzen, beste mundu bat sortu baizik. 643. proposizioak hauxe dio: "... modu honetaz mundua beste bilakatzen da erabat".

Beste galdera bat. Etika-eramalea den nia, hil al daiteke? Ez. Mundutik kanpo dago. Heriotza, nirea bait da, ez da bizitzen. Ez da gertakizuna, ez da pasadizoa (643111, 562). Zeren objektu etikoa ez bait dagokio munduari, gure ikuskaria (bisioa) ikusmen-esparruari ez dagokion bezalatsu. Ez dugu ikusten ikusten dugunik.

Horrexegatik gure bizitza, gurea delako, ez da denboran zehar hedatzen. Orainaldia da eta honek zorian sunarekin zerikusia dauka. Hori da nia bizitzako erdigunea izatearen arrazoia. Baina ez bizitza edo munduan (edo gertakarietan) dagoelako, batek bizitza edo mundua ikusteko daukan ikuspuntu pribilegiatuan gertatzeagatik baizik. Ni hori, errepika dezagun, ez dago denboran. Heriotzarekiko

beldurra kontzientzia zorigaiztoaren ikur bat dugu, denboran bizi garelako seinale bat. Schopenhauer-ek esaten zuen bezala: "Heriotzaren beldurra orainaldia galtzeko beldurra bezalakoa da, globotik erortzeko beldurraren antzekoa. Mundua nire mundua da". Gertakarietan balorerik gabe bizi izaten da. Munduan bizi gara.

"Fuga Mundi" a, beraz, nabaria gertatzen da. Hona zer dioen 1919-6-11an Wittgensteinek bere Egunkarian:

"Zer dakit nik bizitza eta bizitzaren bukaeraz?"

Nik badakit mundu hau existitzen dela,

bertan nire begia ikusmen-esparruan dagoen bezala nagoela, bertan arazodun zerbait dagoela, honi zentzua deitzen diogula, zentzu hau ez dagoela munduan, bertatik kanpo baino...

borondatea zuzena edo okerra dela... Bizitzaren zentzua, hots, munduaren zentzuari Jainkoa dei genie-zaiokeela...

Otoitz egitea bizitzaren zentzuan pentsatzea da... Modu batez bakarrik egin naiteke mundutik burujabe –eta horrela menperatu ahal izan nola edo hala– gertakizunetan eragin nahi izateari uko eginez".

Transzendentalismoaren nozio filosokiko zaharra erabiltzerakoan gaitzespenik ez badu jasotzen, ez da gauza bera gertatzen mistikoa erabiltzen duenean. Asmatu al du horrelako hitza aukeratu duenean, hots, ezagutza diskurtsiboan gaur egun isiltasuna, geldizaletasuna edota arbuioa sortarazten duen hitza erabiltzerakoan?

McGuinness saiatu izan da mistizismo traktarianoaren aztarnak bilatzen. Eta arrasto hauek Russellengana eramaten gaituzte. Honek 1914ean argitaratutako *Mysticism and logic* liburuan zentzu eta arrazoitik kanpo ematen den ezagutza, errealitate guztiaren azken batasunean sinistea, denborazko errealitatearen ukazioa, gaitza ilusio modura... eta antzeko azalpenak erabiltzen ditu mistikoa definitzerakoan. Parekotasun hau Wittgensteinengan ere aurkitzen da. Mc Guinessek arrazoa izan edo ez izateaz aparte, "mistiko" terminoaren erabilera koiunturala izan zen, baina guri mistika eta irudikapenaren esparrutik kanpo dauden beste nozio batzuren artean (etika, estetika, erlijioa...) dagoen erlazioa interesatzen zaigu. Gero ikusiko dugun bezala, Wittgensteinentzat, Etika beste jarrera batzuetatik (itxaropena, amodioa, errua, salbazioa...) bananduezina gertatzen da.

645. proposizioak honela dio: "Mundua orokortasunean sentitzea mistikoa da". 12.ean esana zeukan mundua gertakarietan banatzen zela eta proposizioek, kontingenteak bait dira, ematen digute honen berri. Horregatik, proposizioen bidez irudikatuak izango diren hauetako zati bakoitzak alde batera uzten baditugu, eta orokortasunean kokatzen bagara, Wittgensteinek deitzen duen sentimentu edo ikuspegi mistikoa eskuratuko dugu. 644.ean oraindik gehiago zehazten du: "Mistikoa ez da mundua den **bezalakoa**, **mundua** bera baizik".

Hemen dago Etika: "mistikoan". Horregatik ezin da Etikaz hitz egin. Edo, gutxienez, ezin da normalki hitz egin dugun bezala hitz egin, hots, mundua osatzen duten gertakari batzuez bailitzan. Beste gertakari batzuez argitasun guztiz mintza daiteke, zalantzarik gabe. *Tractatus*-aren hasieran esan daitekeena argitasun osoz esan beharra dagoela esaten zaigu. Mintzaira adierazgarria dagoenean determinazioa dago, osotasun osoa. *Tractatus*-aren amaieran, bestalde, argitasuna daukagu. Baina argitasun desberdin bat. 645.ak honela dio: "Proposizioak gainditu egin behar dira, orduan bakarrik edukiko da munduaren ikuspegi zuzena". Argitasun hau ez da **esatearena**, isilik gelditzearena baizik. Ezagutzen dena eta ezagutzen ez dena bereizten duenaren argitasuna. Berritri nigandik kanpo dagoen zerbait. Ez dut ezagutzen minak ditudanik, baina ezin dut mina daukadanik zalantzan jarri. Honetaz Wittgensteinek ideiak argi eta garbi izan zituen. Benetan garrantzia duena "norberak" oso ongi **daki**. Beste arazo bat da ea hori adieraz daitekeen ala ez, baldin badakigu edo nola adieraz daitekeen. 651.ean hauxe dio "Zalantza egongo da zalantza planteadaitekeen tokian bakarrik". Pentzatzaile zuzen eta pragmatiko baten ikuspegitik objektzioa egiten duen eta erabaki daitekeenaz kezkatzen denaren jarreraren artean dagoen desberdintasuna ez da txikia. Metafisiko gehienek ezagutzazko mintzairatik kanpo bere instrukzioei ezagutza eman nahi izan diete, Kantek "ilusio" hitzarekin deitu zuena. Eta honekin batera gure ezagutzaren mugak gainditzeko joera ematen da.

Baina hau gertatzen bada, azken batez, inportanteena hor dagoelako jokuan gertatzen da. Ez da haur-joku bat, edo bai, haur-jokua zaharkitua ez dena ulertzen badugu, debekuak bota arren isildu ezin daitekeena. Baina geroago jarraituko dugu.

Etikaz hitzegitea (normalki Etikaz ulertzen denaz) tentaldian erortzea izango da. Eta pekatari handiena metafisikoa dugu. Gelditu gabe hitzegiten du hitz egin ezin daitekeenaz. **Esan** eta **azalduaren** arteko bereizketa 1919-8-18an Russell egindako eskutitz batean azaltzen da, non esaten dion ez dela gehiegi enteratu *Tractatus*-ean esaten denaz: "... hauxe da puntu garrantzitsua: zer adieraz daitekeen (esanez) proposizio baten bidez eta zer ezin daitekeen adieraz (esan), azaldu baizik". Etika azaldu egiten da, ez da esaten, edo hobeto zehazteko, ezin da esan. Engelmannek dioen bezala, "hitzik gabeko etika bat".

Tractatus-ari oharpen batzu

Aurrez egindako azalpenaren oinarrian mintzairaren kontzepzio-sistema aurkitzen da. Ez nituzke, hala ere, bi aipamen alde batera utzi nahi. Lehendabizi, Wittgensteinek etika aukeratzerakoan garrantzi "handiagoa" daukan zerbakit azaldu nahi du eta, bigarrenez, ez dugula ahaztu behar Vienako Elkarte osatzen zuen izpiritua eta Schopenhauer eta Kanten eragina.

Wittgensteinek Etika "ongia denari buruzko ikerketa orokor bat" bezala

definitzen du. Gauza bera egiten du Moorek bere *Principia Ethican*. Baina Wittgenstein segidan Etika eta Estetikaz aritzen da. Etika "balioaren" sinonimotzat jotzen du, "benetan garrantzitsua" dena adierazteko, "bizitzaren zentzua", "ongi bizitzeko era" etabar aipatuz. Etika, azken balioetaraino hedatu da, erlijioa, morala edo artea adieraziz.

Wittgensteinek oinarrizko bereizketa bat egiten du **zentzu absolutua** eta **zentzu erlatiboaren** artean. Erlatiboa akzidentala, neutrala, faktikoa, dugun bitartean, Absolutua, aldiz, erabat kontrakoa izango da. Begira ondorengo adibide hau: "Imajina dezagun tenisean jokatzeko ari naizela eta norbaitek "gaizki jokatzeko duzu" esaten didala. Eta nik honela erantzuten diot: "Badakit, baina ez dut hobeto jokatu nahi". Besteak "ongi dago" baino gehiago ezingo luke ihardetsi. Baina pentsa dezagun, oster, izugarritzko gezurra esaten ari naizela eta norbaitek nire portaera hau agerian uzten duela. Eta nik horrela erantzuten dut: "Badakit gaizki ari naizela, baina ez dut hobeto aritu nahi". Izango al litzateke "ongi dago" bestearen erantzuna?. Seguraski "zuk hobeto portatu behar duzu" esango luke. Hona hemen judizio absolutu bat, lehenengoa erlatiboa zen bitartean".

Balio erlatiboa duen judizio bat adierazpen faktiko gertatzen da, hau da, gertakarien propietateetan eta ezin dira, beraz, faktikoki deskribatu ahal izan. Zerbait morala bada ez da faktikoa eta faktikoa izaterakoan, bestalde, ezin da morala izan. Berrero

Humeren legea agerian, hots, gertakari eta balioen artean dagoen gaintitu ezinezko haustura.

Hona hemen zer dioen Wittgensteinek: "... Esan nahi dudana hauxe da; balio erlatibozko judizioak gertakariak besterik ez dira, enuntziatu faktikoa ezin da izan, edo ezin du inplikatu balio absolutuzko judizioa (Humeren legea). Imajina dezagun zuetariko norbait gizaki orojakituna izan eta munduko gorputz guztien mugimenduak ezagutzen dituela eta berak dakien guztia liburu handi batean idazten duela. Kasu honetan liburu hau munduko deskribapen oso bat izango litzateke. Baina horregatik ez lirateke guk judizio etiko izenarekin ezagutzen ditugunak izango, ezta inplikatu ere, zentzu logikoan gutxienez, horrelako judizioak. Liburuak, dudarik gabe, balio erlatibozko judizioak eta egiazko proposizio zientifikoak izango litzateke. Edo hobeto esanda, adieraz daitezkeen egiazko proposizio guztiak. Proposizio guztiak **maila berean** egongo lirateke. Zentzu honetan ez dira proposizio goitiarak, garrantzitsuak (edo arruntak) izango. Honekin ados egon daiteke eta Hamlet-en hitzak gogoratu: "Ezer ez da ona edo txarra, pentsamenduak bakarrik egiten ditu horrelakoak". Hamletek esaten du ongia eta gaizkia, gugandik kanpo dauden gure kualitateak ez badira ere, gure adimenezko egoeraren arabera ematen direla. Baina adimenezko egoera bat, adieraz daitezkeen gertakari bat kontsideratzen dugun neurrian, ez da ona edo txarra zentzu etikoan. Adibidez, hilketa baten deskribapena irakurtzen badugu, gertakari hauen

deskribapen soilak **proposizio etikotzat** jo daitekeen ezer ere ez du izango. Hilketa beste edozein gertakariaren mailan egongo da. Deskribapen honen irakurketak amorrua, arrenkura edo beste edozein emozio sor diezaiguke... Hala ere guzti hauek gertakariak eta gertakariak baino ez dira, baina etikarik ez".

Honekin ez dugu Wittgenstein hunkigarritasunaren bidean kokatu behar. Hunkigarritarrak hilketa bat gaitzesteko sentimentu batzu sortarazten dituen bitartean, Wittgensteinentzat munduko liburuan "adieraz" daitekeen gertakari psikologiko bat izango da. **Bere etika absolutuak inperatibo kantianoarekin**, kategorikoarekin hain zuzen, dauka zerikusia. Hipotetikoa izango balitz judizio erlatiboa izango litzateke. Hau liburu handian aurkituko genuke, Etika ez dagoen liburuan. Etika, zentzu kantianoan beste esparru batean aurkituko litzateke. Baina ez gertakarietan.

Wittgensteinek honela dio geroago "... **Gure hitzak, zientzian erabiltzen ditugun modura, esanahia eta zentzua gorde eta emateko baino ez dira gai**; esanahia eta zentzu **naturala**. **Etika, zerbait izatekotan, naturaz gaindikoa izango litzateke**. Gure hitzek gertakariak adierazten dituzte soilik; tea hartzeko kikara batek bertan sartzen den ura onartuko duen bezala, nahiz **eta guk bestelakorik egiten saiatu**. **Bide zuzena helburura garamatzen bidea baino ez dugu, aurretik zehaztua, eta objektuaren zehaztapen hau kontutan hartu gabe bide zuzenez hitz egiteak ez du**

inolako zentzurik. Bide zuzen hau **mundu guztiak**, ikusterakoan, **behar logiko batez**, ibili beharko luke edo, hau egingo ez balu, lotsatu egingo litzateke. Ongi absolutua, era berean, **deskriba daitekeen egoera izango balitz**, bete egin beharko litzateke edo, bestela, lotsa sentitu. **Baina ez dago epai absolutu baten botere koertzitiboa daukan inolako egoerarik**".

Wittgensteinek behar logikoa erabiltzen du, eta normala da, bere pentsamendua indar handiagoz azaltzeko. Norbaitek behar logikoaren beharrik ez duen "ongi absolutu" baten interpretazio bat ezar dezake. Hemen **Moore**-ren **utilitarismoa** sar daiteke. Baina egoera honek, erreala izanik eta ez utopikoa, Wittgensteinen ikuspegi etikoaren aspektu garrantzitsu bat suntsituko luke. **Etika "nire bizitza" da "pertsonala eta besteganaezina" den zerbait**. **Mundua begiratzeko modua** (forma), **balioa emateko era nire borondateak egiten du, nire niak eta inork ere ez gehiago**. Bestea; desioen objektibizazioa, konbenientzia, konbentzioa, zuzena ez erasotzeko hitzarmen modura ulertzea, etikako erregelak, sinistu gabe betetako promesak etabar... etika izenaz ezagutzen dira normalki, baina horrelakoak ez zuen inoiz Wittgensteinen interesa sortarazi.

Nola adierazten du Wittgensteinek **"guztiz ongia"** dena? Hauexek dira haren hitzak: "Hau azaltzeko modu egokiena esperientzia hau bizi dudanean **munduaren existentziaz harritu egiten naizela** esatea izaten da. Orduan "Zein harrigarria den

zerbait existitzea" edo "Zein harrigarria den mundua existitzea" moduko esaldiak erabiltzera behartuta sentitzen naiz".

Baina zer da "balio absolutu" hau? Edo, hobeto esanda, nola adierazten du Wittgensteinek esperientzia-mota hau? Hona hemen: "**Erabat salbatuta nagoelako esperientzia deituko nioke. Ondorengoa esatera bultzatzen nauen adimenezko egoeraz ari naiz: "Salbatuta nago, gerta daitekeena gertatuta ezerk ez dit minik emango".**

"**Zerbait existitzen delako ziurtasuna**" eta "**norberaren burua erabat salbu aurkitzeari**" "**erru-sentimendua**" gehitzen bazaio, **balio absolutuak**(edo balioak) adierazten dituzten hiru intuizio, sentimendu edo esperientzia-motarekin aurkitzen gara.

Ez ote da hemen eredu existentzialistako oihu-sorta bat egongo, hori bai, esistentzialismoaren elaboraziorik gabe eta korrante honen tradizio historikoaren oinarririk gabe? Lehenbizi, baztertu beharra dago Wittgensteinek filosofiari buruz ezer gutxi zekiela mito exegetikoa. Ez dago horrelakorik, eta Schopenhauer eta Kierkegaarden irakurketak oso nabarian daude. Baina Etikari buruzko gogoetak ez dira bere doktrinaren esparru positibotik kanpo ematen, ez daude *Tractatus*-ean egindako ezagutzaren mugen bestaldetik. Horretaz gain, Etika ez da mugatua eta bereiztua dagoen zerbait **bakarrik**. 6421.ean "Etika eta Estetika gauza bera dira" esaten duenean "**Etika eta Estetika batera ematen dira**" esatea

hobeto egongo litzateke. Balioak, azken batez, batera ematen dira. Eta balioen aurrean jarrera desberdinak ematen badira ere, **garrantzitsuena eta munduaren zentzua beti maila berean ematen dira; irudikapenezko mundua iristen ez den tokian hain zuzen.**

Esandakoa laburtuko bagenu, **existitzea, salbatuta egotea eta erruduna izatearen** esperientziak direla medio, Wittgensteinek munduari begiratzeko adierazten dituen ezaugarri batzu aipatuko nituzke.

- 1- Etika **arazo pertsonala da eta, ondorioz, ez da unibertsala.** Honekin, unibertsalitate etikoaren printzipioak –X ona bada, Xren objektu berdina ona da– ez du inolako iraupenik (zeren, zerbait deskriptiboa bada, ezin bait da etikoa izan).
- 2- Balore absolutuari dagokiona pertsonala izateak ez du esan nahi ezin dela kritikatu. Wittgenstein ez zen hunkigarritarra. Badakigu oso zorrotza zela moral arloan eta jarrera "indezenteak" biziki amorrarazten zuela. Wittgensteinen kezka nagusiak oraineko momentu **guztiaren** erreibindikazio etengabea aurkitzen dira. **Guztiaren** bibentziak, zerbait areagotzen badu, gehiegizko kritikotasuna areagotuko du.
- 3- Etika, Wittgensteinen ustez, historian ematen den edozein gertakariren aurrean urradura, esperantzarik eza eta eszeptizismoa adieraztea izango da. Urradura eten

egiten delako, ihes egiten digulako eskuetatik behin eta berriro. Wittgenstein eszeptikoa azaltzen da gertakarien aurrean, hauek guri eskaintzen diguten indiferentzia berarekin ordaintzen bait diote. Eta nahiz eta ospe handirik ez izan bere garaian, badirudi "eudaimoniaren berri" izan zuela, eta horregatik heriotza ziurraren aurrean bere azken hitz konszienteak hauexek izan ziren: "esan nire lagunei guztia oso ondo egon dela".

Wittgenstein eta ikerketa filosofikoak

Gertakari guztiak **maila berean** daude. Guztiak sar daitezke munduko liburu handian. Inportanteena beste maila batean dago. **Balioa nia, nire borondatea** (trazsudentala) **eta mundua osotasun bezala harremanetan ipintzen dituen ikuspegi-aldaketaren bidez aurkitzen da.** Honi Wittgensteinek "miracle" deitu zion ingelesez, baina "wunder" alemanieraz, eta azken honek "harridura" esan nahi du. Horrela, lehenago esan dugun "harritu egiten naiz munduaren existentziaz" moduko esaldiak emango du etikaren dimentsioa.

Tractatus-ean gutxi esaten bazen etikari buruz, Wittgensteinen ondorengo isiltasuna oraindik handiagoa da. *Ikerketa Filosofikoak* liburu polemikoa da, Wittgensteinek berak *Tractatus*-aren aurka idatzitako liburua hain zuzen. *Ikerketa Filosofikoen* helburua filosofia bat desmontatzea da, berea, orain

dogmatikoezia, norabide bakarrekoa, estuegia iruditzen zaiona. Aurreko filosofia honek **hizkuntza bat baino ez zuen ezagutzen** eta horregatik pribilegiatzen du mintzaira-eredu bat. Baina Wittgensteinek **ez du etikaz hitz egingo, honek erabateko interesa sortzen diolako hain zuzen.** Bigarren garai honetan etika mintzaira guztietan, joku-mota guztietan zehar barreiatuta egongo da. Inportantea den horretara heltzeko bidea oraingo Wittgensteinek aldatu badu ere, asmoek lehenagoko berdinak izaten jarraitzen dute, hots, ongiegi dakigun hori –horrexegatik alegia– ez dagoela esaterik.

Ikerketa Filosofikoak deituriko lanean barneratu aurretik "trantsizio garaia"ri buruz zerbait esan beharko genuke. Horrela, 20.eko hamarkadan eraikuntza traktarianoa oinarritzen zen puntu bat krisian sartuko da. Proposizioen burujabetasunaz ari naiz. Hau nahitaezkoa zen *Tractatus*-ean, hauxe bait zen egi funtzioak osatzeko modu bakarra. Baina Wittgenstein laister ohartzen da **proposizio desberdinen burujabetasuna ez dagoela sostengatzerik.** Hau horrela bada, **mintzairak atomo-multzo baten bidez ez du bere forma hartzen, elkarlotuta eta elkar uztartutako osotasun bat dela medio baizik.** Mintzairako adierazpenen arteko elkardependentzia eta testuinguratzeak indarra hartzen du. Eta honekin batera, mintzairaren kontzeptzio aktiboagoak ez du "te-kikarazko proposizioen" pasitibitatea azaltzen, orain **gizakien interesen zerbitzura dagoen zerbait publiko bilakatu eta haien itzarobideen**

tresna bihurtu da. Mintzaira eta aktibitateak bat egiten dute. Ikuspegi honetatik *Tractatus*-eko **esanahiaren nozioa** desplazatu egiten da. *Tractatus*-ean proposizioak munduko gertakari bat, egiazkoa ala gezurrezkoa izaki, ordezkatzan zuten neurrian esanahia izaten zuten. Oraingo Wittgensteinentzat, ostera, hitzek –eta ez hainbeste proposizioek– bere esanahia aplikazioan edo bere helburuan jasotzen dute. Lehenengo eta bigarren Wittgensteinen arteko urratsa izango da.

Tractatus-eko proposizioek dagoe-neko galdu egin dute lehen zeukatzen botere handi hura. *Ikerketa Filosofiko*-etako 136.ean haxe esaten da: "Proposizio bat (*Tractatus*-ean) egia edo gezurrezkoa izan zitekeela gertatzen zen. Orain, ostera, proposizioa mintzaira-joku batean daukan erabilera baino ez da izango. Proposizioa guk proposizio deitzen duguna izango da". **Etika bera ere gizakiak, kontaezinezko aukeren artean, eraikitzen duen mintzaira-joku gertatzen da.**

Wittgensteinek *Ikerketa Filosofiko*etan mintzaira-joku edo bizitza-forma hauetako adibide asko aipatzen ditu: txisteak, istorioak, dedukzioak, azalpenak, etabar, baina ez dago ezer "mistikoari" buruz (ez baditugu nahikotzat hartzen "ernegatu" edo "otoitz egin" erako jokuak).

Toulminen eritziz Wittgensteinek mintzaira arruntaren kontzientzia hartu zuten momentutik ezin izan zuten bere analisi zuzena burutu *Tractatus*-ean eraikitako sinbolismo logikoaren

bidez, eta horregatik alternatiba bat bilatzen saiatu zen. Habermasen Eskolak egin zuten interpretazioa ere ildo beretik abiatu zen. Mintzaira praktikoa bilakatu da eta **Etikak mintzairaren zeru eskuraezina utzi eta bizitza-forma edo mintzaira-joku desberdinetan ematen den komunikazioan alojatu da.**

Wittgensteinentzat, mintzaira-joku guztietan jarrera moralek funtzionatzen duten neurrian, mintzaira-joku guztietan etika bat dago. Bizitza-formak antolatzen baditugu, horietako bizitza-forma batean mugitzea edo parte hartzea izaki morala izateko modu gertatzen da. Hau ez da berria. Aristotelek ere esaten zuten. Baina ohartu behar dugu Wittgensteinek **gizakiak espezifikoki morala den zerbait esan nahi duenean, ez duela besterik gabe komunikazio-ustetara murrizten.** Absolutuak –ongi dakiguna, baina ezin daitekeena mintzairaren bidez ordezkari– gu kezkatzen segitzen du. Baina irudikapen faltsuetan ez erortzeko, bere maila ez jaisteko, lehenengo Wittgensteinek isiltasuna proposatzen zigen. Orain ez. Ez da hitz egin ezin daitekeenaz azalpen metaforikoa eskaintzen, mintzaira mitikoaren berreskurapena baizik, kultura desberdinetan aurkitzen den modura.

Hau "Frazer-en urrezko abarrari oharpenak" idazkian ikus daiteke. Wittgensteinek beti pentsatu zuten **ezagutzazko mintzaira ordezkari eta ordezkatzeko objektiboaren arteko bestetasuna bete egiten zuten proposizioetan kikatoratutakoa (kikaretan sartutakoa) gertatzen zela.**

Baina benetan interesatzen zaiguna, benetan garrantzitsuena, ez da mintzaira honen bidez eskuratzen.

Wittgensteinek gogor salatzen du Frazer. Honengan mendebaldeko antropologoaren paradigma aurkitzen du, metafisiko dogmatiko edo zientifiko dogmatikoaren paradigma. Frazer primitiboen ideiak ulertarazten saiatzen da, baina zaila gertatzen denez ergeltzat hartuko ditu "basati" hauek, erroredunak bailiran. Wittgenstein-entzat hemen ez dago errorerik. Errorrea (faltsua dena) eta egia proposizioei dagokie eta mitoak ez du proposiziorik erabiltzen bere esanahia adierazteko. **Aktibitate linguistikoak ikur edo aktibitate bat beste bategatik aldatzea suposatzen du.** Helburua ez da ordezkaria daitekeen zerbait ordezkatzea. Hori bere baitan bukatzen da. Badaki "mintzaira" hortik ateratzen bada ez dela ezer lortzen. Funtsezko hitza **jakitea** da. Interesatzen zaigunaren hirurkia Wittgensteinek **jaiotza, sexu** eta **heriotzean** laburtzen du. Ongi dakigu hor daudela, baina ez ditugu ezagutzen ohizko ezagutzaren bidez.

Aurreko Wittgensteinek azkenean isiltasunera gindematzen. Oraingoak, aldiz, "mistikoaren" azalpen egokiak gertatzen diren mito eta poesiara. **Wittgensteinek bere bizitza guztian pentsatu zuen proposizioak gauzen egoera bat, proposizioarekin zerikusirik gabekoa, ordezkatz**

duenean bakarrik ematen dela ezagutza. Horregatik, "minak nago" ez da proposizioa, ez bait du beharrezko bestetasuna betetzen. Horrela, zuzendu, hobetu edo zalantzan jar ezin daitekeena ez da ezagutza. **Ezagutza esaten dena beste modu batera esan daitekeenean, faltsua izan daitekeenean, ematen da bakarrik.**

Tautologia tractarianoaren antzeko baten aurrean gaude. Egia beti kontingentearen aurrean, egia edo gezurrezkoaren aurrean inposatzen zen. "Minak dagoenak" oso ondo daki horren berri, badaki dauzkala, nahiz eta ez dituen ezagutzen.

"Frazer-en Urrezko Abarrari buruzko oharpenak" aipatuz hauxe esan daiteke: "heriotza, jaiotza edo sexuaren adierazpena, hau da, urteetan zehar gizakiak berari buruz jasotzen duena, ebidentea izaten da, benetan dakiguna eta benetan interesatzen zaiguna gertatuz". *Tractatus*-ean –inportantea izategatik– esan ezin zitekeenaz isiltasuna eskatzen bazitzaigun –eta hor zegoen Etika–, bigarren Wittgensteinek –bere modura Kantek egin zuen bezala– inportantea dena, interesatzen zaiguna, ezagutza arruntetik leku ziur, apartatu eta desberdin batean utzi nahi du. Ezin gara harritu, beraz, horrela sentitu eta pentsatzen zuenak –ofizioz– ezagutzen banatzaile unibertsitarioa izanik, honako hau esatea: "filosofia irakaslearen enplegu absurdua ... bizitzan heriotza gertatzen da".

Bibliografia

a) WITTGENSTEINEN LANAK

- *Cartas a Russell, Keynes y Moore*. Taurus. Madril. (1979).
- *Diario Filosófico*. Ariel. Bartzelona. (1982).
- *En torno a la ética y el valor*. Universidad de San Marcos. Argentina. (1965)
- *Frazer-en Urrezko Abarrari buruzko oharpenak* eta Norman Lillegard-ek egindako *Wittgenstein eta hasierako erlijioa*, Javier Sadabak gazteleratu eta neronek euskaratua. Literatur Gazeta. Donostia. (Azaroak 1985).
- *Investigaciones Filosóficas*. Crítica. Bartzelona. (1988).
- *Los cuadernos azul y marrón*. Tecnos. Madril. (1984).
- *Observaciones varias*. Siglo XXI. Mexico. (1989)
- *Remarques Philosophiques*. Gallimard. Paris. (1975).
- Sobre la certeza. Librería General. Zaragoza. (1988)
- *Tractatus Logico-Philosophicus*. Alianza. Madril. (1981).
- *Ultimos escritos sobre filosofía de la psicología*. Tecnos.Madril. (1987).
- *Zettel*. UNAM. Mexico. (1979)

b) WITTGENSTEINI BURUZKO LANAK

- ALSTON, W.P. eta beste batzuk; *Los orígenes de la filosofía analítica: Moore, Russell, Wittgenstein*. Tecnos. Madril. (1985).
- AYER, A.J.; *Wittgenstein*. Librería General. Zaragoza. (1986)
- BERNHARD, T.; *Corrección*. Alianza. Madril. (1983)
- BRAND, G.; *Los textos fundamentales de Ludwig Wittgenstein*. Alianza. Madril. (1981).
- FANN, K.T.; *El concepto de Filosofía en Wittgenstein*. Tecnos. Madril. (1975)
- GARCIA SUAREZ, A.; *La lógica de la experiencia, Wittgenstein y el problema del lenguaje privado*. Tecnos. Madril. (1976).
- JANIK, A. eta TOULMIN, S.; *La Viena de Wittgenstein*. Taurus. Madril. (1979)
- KENNY, A.; *Wittgenstein*. Alianza. Madril. (1981)

MOUNCE, H.O.; *Introducción al Tractatus de Wittgenstein*. Tecnos. Madril (1983)

SADABA, J.; *Conocer Wittgenstein y su obra*. Dopesa. Bartzelona. (1980).

SADABA, J.; *Lenguaje, Magia y Metafísica* (El otro Wittgenstein). Ediciones Libertarias. Madril. (1984).